

Urola Kostako autobus-zerbitzua hobetzeko prozesua

2. fasea

2014ko maiatza

elhuyar
Aholkularitza





Aurkibidea

2.

1. Sarrera	6
2. Prozesuaren helburuak	8
3. Prozesuaren deskribapena	9
4. Genero-ikuspegia txertatzea	10
5. Antolaketa-lanak	11
5.1. Talde-Eragilea	11
5.2. Talde teknikoarekin harremana	14
5.3. Udalekin elkarlana	14
5.4. Berdintasun teknikariekin harremana	15
6. Komunikazioa	16
7. Landa-lana	29
7.1. Bilerak	29
7.2. Galdetegiak	30
7.3. Datu orokorrak	31
8. Azterketa herriz herri	35
8.1. Aia	35
8.2. Aizarnazabal	37
8.3. Azkoitia	39
8.4. Azpeitia	41
8.5. Beizama	45
8.6. Errezil	47
8.7. Getaria	49





Aurkibidea

3.

8.8. Orio	51
8.9. Zarautz	53
8.10. Zestoa.....	55
8.11. Zumaia.....	57
9. Azterketa lineaz linea	59
9.1. Eskaera orokorrak	60
9.2. Generoaren araberako eskaerak.....	61
9.3. Aia-Orio / Aia-Zarautz	62
9.4. Azkoitia-Donostia	63
9.5. Azkoitia-Tolosa.....	64
9.6. Azkoitia-Zarautz	65
9.7. Azpeitia-Beizama.....	66
9.8. Zestoa-Eibar.....	67
9.9. Zumaia-Donostia	68
9.10. Zumaia-Zumarraga-Ospitalea.....	69
9.11. Aizarnazabal-Zestoa / Aizarnazabal-Zumaia	70
10. Prozesuaren balorazioa	71
10.1. Parte-hartzaileen balorazioa.....	71
10.2. Elhuyarren balorazioa.....	72
10.2.1. Antolaketa-lanak	72
10.2.2. Komunikazioa.....	73
10.2.3. Metodologia	74
10.2.4. Ustiaketa	74
10.2.5. Parte-hartzea.....	74





Aurkibidea

4.

10.2.6. Helburuen betetze-maila 75

10.2.7. Koordinazioa LKSkoekin 75



Txosten honetan, [Gipuzkoako Foru Aldundiaren](#) eskariz, Urola Kostan garatu dugun parte hartzeko prozesuaren 2. faseak eman duena jaso dugu. Prozesuaren helburua egungo autobus-zerbitzua hobetzeko eta zerbitzuaren erabilera handiagotzeko, herritarren benetako beharrak eta nahiak jasotzea izan da.





1. Sarrera

6.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren legegintzaldi honetako erronka garrantzitsuenetako bat da lurraldean garraio publikoko sistema hobetzea, geroz eta gipuzkoar gehiagok garraio publikoaren aldeko hautua egin dezaten.

Momentu honetan Aldundiaren eskumenekoak diren herriarteko autobus bidezko garraio publikoko zerbitzuen kontratuak luzatuta daude, Ekialdebusen kontratua salbu. Horiek egunean jartzeko, datorren ikasturtean, Gipuzkoako hego-mendebaldeko emakida administratiboak berritu behar ditu Aldundiak, eta une hori baliatu nahi izan du herritarren benetako beharrak entzun eta horien arabera zerbitzuak eskaintzeko. Izan ere, orain arte teknikarien eta politikarien irizpideen arabera ezarri izan dira autobus-zerbitzuetarako kontratazio-irizpideak; oraingoan, ordea, egungo erabiltzaile eta erabiltzaile potentzialengana jo nahi izan du, horien interesen eta beharren arabera zerbitzuak proposatzeko.

Parte hartzeko prozesuak lau eskualdetan garatu dira. Dena den, aipatu beharrekoa da ez direla eskualde naturalak, egungo garraio publikoaren antolamendutik bereizi diren eskualde edo eremu geografikoak baizik. Lau eskualde edo eremu geografikoak ondokoak dira:

- Goierrialdea: Goierri eta Urola Garaia (22 udalerri).
- Urola-Debabarrena: Urola Kosta eta Debabarrena (17 udalerri).
- Debagoiena (8 udalerri).
- Buruntzaldea: Buruntzaldea eta Tolosaldea Donostialdearekin lotzen duten zerbitzuak (9 udalerri).

Guztira, beraz, 56 herritan gauzatu da parte hartzeko prozesua, bi fasetan banatuta. Lehen fasea 2013ko udazkenean egin zen, eta bigarrena, berriz, 2014ko martxoa eta apirila artean egin da. Lehenengo fasean egungo zerbitzuaren balorazioa egin zen herritarrekin, eta identifikatutako gabeziak gainditzeko herritarren proposamenak nahiz ekarpenak jaso ziren. Horiek kontuan hartuta idatzi zen garraio-zerbitzu berrien aurreproiektua. Bigarren fase honetan, berriz, prestatutako aurreproiektua herritarrekin kontrastatu da, eta horri ekarpenak egin zaizkio. Behin betiko proiektua 2014ko ekainerako egotea aurreikusten da, eta 2015eko urte hasierarako zerbitzu berriak martxan jartzea.

Txosten honetan 2014ko udaberrian Urola Kosta eskualdean garatu dugun prozesuaren ingurukoak jaso ditugu.

Prozesua Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publikoko zuzendaritzaren eta Herritarren Partaidetzarako zuzendaritzaren ardurapean garatu da, eta bidelagun izan ditugu gainerako





1. Sarrera

7.

eskualdeetan jardun duten aholkularitzak ere: Aztiker, Mirua21 eta Nola. Halaber, prozesua garatu ahal izateko ezinbestekoa izan da Udalekin eta eskualde bakoitzeko eragileekin elkarlanean jardutea. Amaitzeko, gure eskerrona adierazi nahi diegu eskaini diren bide desberdinetatik parte hartu duten herritar guztiei; saioetara hurreratu direnei, galdetegia paperean nahiz webgune bidez bete dutenei eta autobusetan nahiz geltokietan gure galderei erantzun dieten guztiei.





2. Prozesuaren helburuak

8.

Hona hemen prozesu honen bitartez lortu nahi izan ditugun helburuak:

Helburu orokorra

Urola Kosta eskualdeko autobus-zerbitzuak hobetzea, bertako herritarren partaidetzarekin. Gisa honetara, epe ertainera autobus-zerbitzuen erabiltzaile-kopurua handitu nahi da, lurraldean dagoen mugikortasun arazoari irtenbidea emateko eta ingurumenari begira errespetuzkoagoak diren praktikak hedatzeko.

Helburu zehatzak

- Herritar eta teknikarien arteko elkarlana sustatzea.
- Herritarren benetako beharren eta nahien arabera garraio-plan berriak idaztea.

Zeharkako helburuak

- Gipuzkoarron parte hartzeko kultura, ikuspegia eta ezagutza indartzea.
- Kolektibo gutxituek (batez ere, emakumeek) bizitza publikoan parte hartzea sustatzea, partaidetza orekatua bermatuz, eta prozesua kolektibo horiek ahalduzko tresna moduan baliatuz.





3. Prozesuaren deskribapena

9.

Sarreran esan bezala, parte hartzeko prozesuak 2013ko udazkenetik 2014ko udaberrira bitartean iraun du, eta bi fase nagusi izan ditu: lehena, gaur egun herritarrek garraio-zerbitzuaz duten iritzia jasotzeko eta hori hobetzeko ekarpenak eta proposamenak jasotzeko; bigarrena, berri, emakida berriaren aurreproiektu teknikoa kontrastatzeko, herritarrek lehen fasean egindako proposamenei erantzunak emanez eta erantzunaren zergatiak azalduz. Behin betiko txostena idatzi ondotik, eta dagokion prozedura jarraitu ondotik, lehiaketara aterako da emakida berria. Prozesu administratiboa garatzen den bitartean, 2014ko iraila-urrian, eskualdeko bilera egingo da, eskualdeko autobus zerbitzua nola geratuko den informazioa emateko.

Hona hemen grafikoki adierazita prozesuaren eskema orokorra:





4. Genero ikuspegia txertatzea

10.

Genero-ikuspuntua edo genero-mainstreaminga txertatzea nazioartean eta European gomendatzen diren lan-estrategietako bat ez ezik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko euskal herri-aginteen jardura zuzendu eta orientatu behar duten printzipio orokorretako bat ere bada, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4 artikuluari jarraiki.

3.4. artikulua. Genero-ikuspegiaren integrazioa.

Euskal herri-aginteeek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

Lege honen ondoretarako, honako hau da genero-ikuspegia txertatzea: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze eta ebaluazio-fase guztietan.

Zentzu honetan, hainbat neurri hartu ditugu emakumezko eta gizonezkoen egoera, behar eta iritziak era berezitan jasotzeko.

Antolatutako emakumezkoen iritziak jasotzeko, Berdintasun kontseiluak eratuta dituzten udalerrien kasuan zuzeneko harremana izan dugu bertako Berdintasun teknikariek.

Bileretan proposamenak aurkeztu bitartean herritarrek euren ohar, zalantza eta ekarpenak jaso zitzaten prestatu genuen fitxan emakume edo gizonak ziren identifikatzeko laukitxo bana zuten. Era honetara, bakoitzak bere hausnarketa propioak jasotzeko aukera izan zituen, gero taldean aurkeztu aurretik. Bilera bukaeran fitxa guztiak jaso ditugu, eta honek aukera eman digu bestela talde handian aipatuko ez liratekeen ekarpenak ere jasotzeko eta ondoren emakumezko eta gizonezkoen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak identifikatu ahal izateko.





5. Antolaketa-lanak

11.

Txosten honetan, parte hartzeko prozesuaren bigarren fasean egindakoak deskribatuko ditugu.

5.1. Talde Eragilea

Talde Eragilea izan da egitasmo hau antolatzeko, kudeatzeko eta segimendua egiteko arduraduna, baita egitasmoa garatzeko beharrezkoak diren bitartekoak jartzekoa ere. Taldea honako kide hauek osatu dugu:

- Arantza Ruiz de Larrinaga: Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako zuzendaria
- Unai Erroitzenea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko zuzendaria
- Aitziber Iartza: Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Bide Azpiegiturako komunikazio arduraduna
- Arantzazu Loidi eta Olatz Estensoro: Nolako teknikariak
- Arkaitz Martinez de Albeniz eta Naiara Mugika: Aztikerreko teknikariak
- Itziar Eizagirre: Miruako teknikaria
- Jon Abril: Elhuyarreko teknikaria

Bigarren fase honetan Talde Eragileak 6 bilera egin ditu:





5. Antolaketa-lanak

12.

BILERA-MOTA	BILERA-EGUNA	EGINDAKOAK
Talde Eragilearen 1. bilera	Urtarrilaren 22a	2. Fasearen egutegia zehaztu. - Komunikaziorako proposamena adostu. - Prozesuaren plantemandua diseinatu (bilerak eta online)
Talde Eragilearen 2. bilera	Otsailaren 12a	- Komunikazio-plana landu. - Prozesuan genero ikuspegia txertatzeko irizpideak landu.
Talde Eragilearen 3. bilera	Martxoaren 5a	- Emakidak diseinatzeko lantalde teknikoekin egindako bileren ondorioak ezagutzera eman. - Komunikazio-plana landu. - Udalekin harremanak bideratu. - Herrietako bilerak lotu.
Talde Eragilearen 4. bilera	Martxoaren 19a	- Komunikazio-planaren segimendua egin. - Udalekin izandako bileren berri eman





5. Antolaketa-lanak

13.

BILERA-MOTA	BILERA-EGUNA	EGINDAKOAK
		Herrietako lehen bileren inguruko xehetasunak agertu
Talde Eragilearen 5. bilera	Apirilaren 9a	Herriz herriko bileren jarraipena egin
Talde Eragilearen 6. bilera	Maiatzaren 14a	- Txostena aurkeztu. 2. fasearen, eta oro har, prozesu osoaren ebaluazioa egin.





5. Antolaketa-lanak

14.

5.2. Talde teknikoarekin harremana

Talde Eragileaz gain, bigarren fase honetan harremana izan dugu Urola Kostako eta Debabarrenako emakidarako proposamen teknikoa lantzen ari den LKSko lantalde teknikoarekin.

Bi bilera egin ditugu. Lehena Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariekin batera, eta bertan, nagusiki, lehen fasean aterako ondorioak aurkeztu ziren. Bilera hori otsailaren 6an egin zen.

Ondoren, martxoaren 4ean, herritarrei aurkeztuko zitzaien proposamenaren zertzelada nagusiak ezagutzeko bigarren bilera bat antolatu zen, eta bide batez, bilera horiek metodologikoki nola planteatzen ziren, eta ardurak nola banatuko ziren zehaztu genuen.

5.3. Udalekin elkarlana

Parte-hartzeko prozesua antolatzeko ezinbestekoa izan dugu eskualdeko Udalen lankidetzaz. Udalez gain, mankomunitateekin eta garapen agentziekin harremana egin dugu, baina Udalekin lan egin da, ia erabat. Prozesuan zehar saioak antolatzeko eta segimendua egiteko harreman iraunkorra izan dugu. Lehendabiziko fasean harreman horiek bideratu zirenez, oraingo honetan, proopsamen orokorra aurkeztu zitzaien eskualdeko batzarrean, eta ondoren, udalerrri bakoitzarekin, nagusiki, bileren antolaketarekin eta koordinazio orokorrarekin loturiko gaitara mugatu da harreman hori (buzoiak non jarri, bilera lekuak zehaztu, komunikazio orokorra...).

BILERA-MOTA	BILERA-EGUNA	EGINDAKOAK
Udal ordezkariekin 1. bilera	Martxoak 12	- Prozesuaren emaitzak aurkeztu eta konpartitu: proposamen teknikoaren aurkezpena. - Komunikazio-lanak bideratu. - Herritarrekin egingo diren bileren egutegia eta tokia adostu eta bileren dinamika azaldu. - Ekarpenak jaso.





5. Antolaketa-lanak

15.

5.4. Berdintasun teknikariekin harremana

Autobus-zerbitzuen erabiltzaile ohikoenak emakumezkoak dira. Egitate horrek lotura zuzena du egungo gizarte-antolaketa-rekin eta antolaketa horretan emakumezkoek eta gizonezkoek duten posizionamenduarekin eta jokatzeko dituzten rolerekin. Hori dela eta, emakumezkoak garraio publikoarekiko menpekotasun handiagoa dute, eta garraioaren antolaketa modu zuzenagoan eragiten die.

Horrela, prozesu honetan garrantzia berezia eman nahi izan diogu emakumeen beharrak, interesak, bizipenak eta esperientziak jasotzeko, garraio-zerbitzu berriak horietara egokitzeko. Bestetik, emakumei hitza eman nahi izan diegu, espazio publikora atera eta euren beharrak gizarteratzea sustatu dugu eta, beraz, emakumeen jabekuntzan eta partaidetzan aurrera egitea. Azkenik, bisibilizatu egin nahi izan dugu garraio-publikoaren erabiltzailea emakumezkoa dela, horrek genero-rolen inguruko hausnarketa bideratuko duelakoan.

Berdintasun teknikariak izan dira emakumeengana iristeko erabili dugun bide zuzenena, eurak baitira tokian tokiko errealitatea ezagutzen dutenak. Azkoitia, Azpeitia, Zarautz eta Zumaiako berdintasun teknikariekin harremanetan jarri gara, eta Urola Kostarako garraioa hobetzeko proposamena helarazi diegu. Eskatu diegu hori aztertzeko eta ekarpenak egiteko. Azkoitia, Zarautz eta Zumaiako berdintasun kontseiluetan gaia landu da, baina ez dugu idatzizko proposamen zehatzik jaso. Zarauzko kasuan, erantzunak webgune bidez bideratuko zituztela adostu zuten. Pentsatzekoa da gainontzeko kasuetan herriarrekin egin ditugun bileretan edo aukeran emandako beste bideak erabilia helaraziko zituztela euren ekarpenak.





6. Komunikazioa

16.

Gipuzkoako Foru Aldundiak herri arteko autobus zerbitzua hobetzeko parte hartze prozesu egitea erabaki zuenean, argi ikusi zuen herritarrei ezagutarazteko funtsezkoa zela mezu bateratu bat eta euskarri berak erabiltzea. Bost eremu ezberdinetan egin beharreko ekimena izan arren, eta parte hartze prozesua aholkularitza ezberdinek gidatu behar zuten arren, argi zegoen elementu bateratuak behar zituela eta proiektuari osotasuna eman behar zitzaiola.

Lelo eta irudi bateratua

Lehenengo fasean, beraz, lelo eta irudi bateratua sortu zen. Hori osatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartzearen inguruan jada sortua zuena aztertu zen eta ikusi zen funtsezkoa zela harekin lotura izatea, haren bilakaera izatea. Gipuzkoako Foru Aldundiak Herritarrekin leloa eta logoa erabiltzen du,



Hau da oinarrizko logoa:

Honen bilakaera gisa, erabaki zen autobus zerbitzua hobetzeko prozesuari Herritarrekin martxan / En marcha leloa ezartzea, herritarrak eta mugimendua elkartzen dituelako, eta irudi gisa autobusak txertatu zitzaizkion. Horrez gain, Gipuzkoa Berria marka ere gehitu zitzaion, erakundearen eredu berriarekin bat datorren kanpaina delako. Hauxe izan da kanpaina honetan erabili dugun irudia:





6. Komunikazioa

17.



Lelo eta logotipoa kanpo eta barne komunikazio guztietan erabili da.






6. Komunikazioa

18.

Euskarriak

Kanpaina osorako euskarriei dagokienez, batzuk parte-hartzeko tresnak izan dira eta beste batzuk prozesua bera eta parte hartze bideak ezagutarazteko.

Webgunea: www.garraioahobetzen.net webgunea martxan jarri zen 2013ko urriaren 4ean, eta prozesuko 3. faserakoa (parte hartzeko 2. faserako), 2014ko martxoaren 15ean egitura berria ezarri zen. Webgunearen helburua prozesuari buruzko informazioa ematea izan da, baina batez ere, parte hartzeko tresna da. Parte-hartze hori gauzatzeko webgunearen bidez ekarpenak egiteko aukera eman zaie erabiltzaileei, galdetegia Internet bidez betez. Webgune honek 3. fasean (martxoaren 15etik apirilaren 15era) 5.500 bisitari ezberdin izan ditu, bisitari horien %65ak lehen orriaz gain besteren bat ere bisitatu du eta webgune bidez fase honetan ia 300 galdetegi jaso dira (lehenengo fasean 500).





6. Komunikazioa

19.

E-mail marketin ekintza: Webgunearekin lotuta, e-mail marketin ekintza bat ere egin da. Gipuzkoako Garraio Agintaritzarekin elkarlanean, Mugi-Lurraldebus txartela duten 56 herri horietako erabiltzaileei (e-posta emana zuten erabiltzaileei) e-posta bidez mezua bidali zitzairen prozesuan parte har zezaten, webguneko galdetegiarekin lotura eginez. Martxoaren 21ean egindako ekintzak eragina izan zuen webguneko sarreretan, google analytics bidez ikus daitekeenez. Guztira, 20.000 laguni bidali zitzairen e-posta.

2. FASEA

www.garraioahobetzen.net

herriarrek
martxan en marcha

Gipuzkoa BERRIA

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua
Proceso para mejorar el servicio de autobuses

Gipuzkoa BERRIA

TCG Gipuzkoako Garraioko Agintaritza

NOLAKO AUTOBUS ZERBITZUA NAHI DUZU?
Gipuzkoako Foru Aldundiak zurekin batera hobetu nahi du zerbitzua. Parte-hartzaile guztien artean Mugi/Lurraldebus txartela kargatzeko 20 euroko bonoak zotz egingo ditugu.

¿COMO QUIERES QUE SEA EL SERVICIO DE AUTOBUSES?
La Diputación Foral de Gipuzkoa quiere mejorar el servicio de autobuses contigo. Entre todas las personas participantes, se sortearán bonos de recarga de 20 euros para las tarjetas Mugi/Lurraldebus.

**PARTE HARTU
ETA IRABAZI
PARTICIPA
Y GANA**






6. Komunikazioa

20.

Sare sozialak: Internetekin jarraituz, sare sozialetan ere izan du lekua autobus zerbitzua hobetzeko prozesuak, twitter eta facebook kontuak izan baititugu. Fase honetan lehenengoan baino interaktibitate handiagoa izan da, baina hala ere, parte-hartzea areagotzea falta izan zaigu.



Diptikoak. Herritarrei prozesuaren berri emateko eta parte hartzea bultzatzeko eremu edo eskualde bakoitzerako diptiko bana kaleratu zen. Diptiko horietan Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamenari buruzko oinarritzko informazioa zegoen, lineatan izandako aldaketa nagusiak azalduz, eta baita iritzia emateko aukera ere, herritarrek inkesta bete eta parte har zezaten. Diptiko horiek 56 herri horietako postontzi guztietan banatu ziren, Gupost enpresaren bidez. Horrelako banaketetan beti gertatzen den eran, arazoak izan dira, baina, oro har, banaketa txukuna izan da. 180.000 diptiko inprimatu eta banatu ziren.






6. Komunikazioa

21.

Hona hemen diptiko horietako baten azala:



Debagoiena

Gipuzkoako autobus zerbitzua hobetzeko prozesua martxoan jarri zen abian, eta 56 herrian herriaren iritzia jaso ostean, teknikariek aurreproiektuak egin dituzte; orain, Gipuzkoako Foru Aldundiak berriro herriaren iritzia jaso nahi du, proposatutako zerbitzu berria herriaren beharretara egokitu den jakiteko. Beraz, aurreproiektuak azalgarazte eta horien inguruan jendeak duen iritzia jakitea da martxoan eta apirilean egingo den fase honen helburua. Parte hartu eta eman iritzia, autobus zerbitzua hobetzeko zure esku ere badagoelako!

A finales del 2013 comenzó el proceso para mejorar el servicio de autobuses de Gipuzkoa, en cuya primera fase se recabó la opinión de la ciudadanía de 56 municipios. En base a esas aportaciones un equipo técnico ha confeccionando el anteproyecto para la mejora del servicio de autobuses, y ahora, durante marzo y abril, la ciudadanía tiene la oportunidad de volver a dar su opinión. Por lo tanto, todavía tienes la posibilidad de hacer tus aportaciones para mejorar el servicio. No pierdas esta oportunidad.





6. Komunikazioa

22.

Postontziak. Aipatutako diptiko horiek era errazean Aldundira helarazi ahal izateko, diptiko horietan posta helbidea ageri zen, baina horrez gain, herrietako udal eraikinetan eta eremu horietako autobusetan postontziak jarri dira, herritarrek ekarpenak bertan utz zitzaten. Batez ere autobusetan jarritako postontzietan herritarren ekarpen dezente jaso dira. Postontziak lehenengo fasean ere erabili ziren eta hainbat postontzi berrerabiltzeko moduan egon dira fase honetan, berri batzuk ere egin behar izan diren arren.

Hona hemen postontzietako bat:





6. Komunikazioa

23.

TFT pantailak: Erabiltzaileei prozesuaren berri emateko, autobus geltokietako pantailetan soinurik gabeko 30 segundoko bideoa eman da. Fase honetan eskualde bakoitzeko bideo bat egin da, eta horien bidez batez ere jendea bileretara bideratzea bilatu da, horregatik eskualde bakoitzeko bileren egutegia sartu da bideoetan.



Kartelak. Autobusekin eta leku publikoekin jarraituz, herrietako bileren berri emateko autobus geltokietan eta leku publiko esanguratsuetan kartelak jarri ziren, herritarrek bileren berri izan zezaten, zuzeneko parte hartzea prozesu honen oinarri garrantzitsuetako bat izan baita.

Guztira 1.500 kartel inprimatu ziren, eta Gupostek jarri zituen





6. Komunikazioa

24.

2.
FASEA

www.garraioahobetzen.net

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua
Proceso para mejorar el servicio de autobuses

ETORRI ETA
PARTE HARTU

LAZKAO

Gipuzkoako autobus zerbitzua hobetzeko prozesua martxan jarri zen laz, eta 56 herritan herritarren iritzia jaso ostean, teknikariek aurreproiektuak egin dituzte. Orain, Gipuzkoako Foru Aldundiak proposamena ezagutarazi eta berriro herritarren iritzia jaso nahi du; zerbitzua zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi du, eta oraintxe duzu aukera.

Está en marcha el proceso para mejorar el servicio de autobuses. En la primera fase se recabó la opinión de la ciudadanía de 56 municipios, y el personal técnico ha realizado un anteproyecto en base a esas aportaciones. Ahora, la Diputación Foral de Gipuzkoa quiere dar a conocer el anteproyecto y saber si realmente se adecua a las necesidades de la ciudadanía, realizando los cambios que se estimen oportunos.

BILERA IREKIA / REUNIÓN

MARTXOAREN 19A, 18:00

UDALETXEA





6. Komunikazioa

25.

Spota: Lehenengo fasean ez bezala, oraingoan ETBn, Hamaika Telebistan eta hainbat tokiko telebistatan (Erlo, Goitb...) emititzeko spota egin da, 20 segundo inguruko spota, jendeari prozesuaren berri emateko eta webgunera bideratzeko.



Publizitatea prentsa idatzian. Iragarkiak atera dira prentsa idatzian, bai prentsa orokorrean (Berrian, Garan eta DVn), eta baita tokiko hedabideetan (Tokikomen barruan dauden idatzizko euskarazko aldizkari ia gehienetan). Publizitatea elebitan egin da.





6. Komunikazioa

26.

2.
FASEA

www.garraioahobetzen.net

herriarrek
martxan en marcha

Gipuzkoa BERRIA

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

**PARTE HARTU
ETA IRABAZI**

Parte-hartzaile guztien artean
Mugi/Lurraldebus txartela
kargatzeko 20 euroko bonoak
zotz egingo ditugu.

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: www.garraioahobetzen.net

Publizitatea irratietan. Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Ser, Onda Cero eta Info 7 irratietan soinu deiak edo kuñak sartu dira, elebitan, herritarrei parte hartzeko deia eginez.





6. Komunikazioa

27.

Publizitatea webguneetan. Hedabide orokor batzuen webguneetan, tokiko hedabide batzuen webguneetan eta udal askoren webguneetan bannerrak jarrita egon dira hilabetez.



Prentsaurrekoak. Hedabideetan oihartzuna lortzeko hainbat prentsaurreko ere eman dira.

- Martxoaren 13an prozesua hastear zela jakinarazteko prentsaurrekoa eskaini zuten Martin Garitano diputatu nagusiak, Larraitx Ugarte Mugikortasun diputatuak eta Tolosako alkate Ibai Iriartek, Bergarako alkate Jaione Isazelaiak eta Getariko alkate Nika Lertxundik, 56 herrietako ordezkari gisa.
<http://www.gipuzkoaberri.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/1325/aldundiak-autobus-zerbitzua-berritzeko-proposamena-egin-du-3000tik-goraherritarrek-egindako-ekarpenen-75-baino-gehiago-onartuta>
- Eskualdeko prentsaurrekoak ere izan dira bi eskualdeetan: Debagoienan (martxoaren 17an) besteko alkateekin eta Goierri bertako hainbat alkateekin.
- Apirilaren 4ean kanpainako lehenengo 15 egunen balantzea egin zen, prentsa ohar baten bidez:

Erreportajeak eta elkarrizketak. Hedabideetan oihartzuna lortze aldera, lanketa berezia egin da hedabideetan. Idatzizko medioei dagokionez, erreportajeak edo artikululu luzeak kaleratu dituzte Gipuzkoako Hitzan, hainbat tokiko hedabideetan. Irratien kasuan, erreportaje edo elkarrizketak egin dituzte SER irrati katean, Euskadi Irratian, RNE eta abar. Telebistetan, berriz, Hamaika Telebistan, Goiena Telebistan, Goierri Telebistean eta 28 kanalean egin dituzte erreportajeak. ETBn Larraitx Ugarteri elkarrizketa egin zioten apirilean ETB 1-eko Egunon Euskadi saioan eta ETB-2ko Euskadi Hoy saioan, eta bietan prozesuari buruzko azalpenak eman zituen.

Zozketa. Parte-hartzea bultzatzeko galdetegia bete edo bileretan parte hartu duten herritar guztien artean Mugi/Lurraldebus txartelak kargatzeko 20 euroko bonoak zotz egin ditu Aldundiak. Guztira 100 bono zotz egin ditu Aldundiak, parte hartzea bultzatzeko eta parte hartu duten guztiei ekarpena egin izana eskertzeko.





6. Komunikazioa

28.

Eskerrak emateko mezua. Prozesuan parte hartu eta haiekin harremanetan jartzeko bidea eman diguten herritarrei mezua bidaliko zaie, eskerrak ematen eta prozesuaren hurrengo faseak azaltzen.





7.Landa lana

29.

Herritarrei zerbitzu berriaren aurre-proposamena aurkeztu ondotik, ekarpenak egiteko bideak bi izan dira: herriz herri egindako bileren bidez, zein galdetegiari erantzunez. Galdetegiak etxe guztietara banatutako esku-orriaren bidez zein internet bidez erantzun ahal izan dute.

7.1. Bilerak

Guztira 11 bilera egin ditugu Urola Kostan,. Hona hemen bileren egutegia:

HERRIA	EGUNA	ORDUA	TOKIA
Aia	Apirilak 7	19:00	Kultur etxea
Aizarnazabal	Martxoak 31	19:00	Kultur Etxea
Azkoitia	Apirilak 9	18:30	Elkargunean
Azpeitia	Martxoak 26	19:00	Udaletxea
Beizama	Apirilak 4	19:00	Udaletxea
Errezil	Martxoak 28	20:00	Udaletxea
Getaria	Martxoak 18	19:00	Alhondegia
Orio	Martxoak 19	19:00	Kultur etxea





7.Landa lana

30.

Zarautz	Martxoak 17	19:00	Etkezabala
Zestoa	Martxoak 24	19:00	Udaletxea ^o
Zumaia	Apirilak 2	19:00	Alhondegia kultur etxea

Herri bakoitzean bilera orokor bat egin dugu, herritar gutxiei irekia.

Bileren iraupena ordu eta erdi edo bi ordukoa izan da, eta hona hemen gai-zerrenda:

- Sarrera: ongi-etorria, erregistroa, hizkuntzaren tratamendua, argazkiak...
- Prozesua azaltzen duen bideoa ikusi
- Prozesua aurkeztu
- Egungo zerbitzua hobetzeko proposamena aurkeztu
- Proposamena aztertu eta hobetzeko proposamenak jaso (talde txikitan)
- Landutakoa gizarteratu
- Saioa eta prozesua baloratu

7.2. Galdetegiak

Prozesu honetan ahalik eta herritar gehienei parte hartzeko aukera emateko galdetegi bat sortu dugu, eta hori paperean nahiz on-line betetzeko aukera eman diegu herritarrei. Asko izan dira bide hori hautatu duten herritarrak (162), eta gainera aukera desberdinak erabili dituzte galdetegia bete eta helarazteko: webgunea, herrietako postontziak, autobusetako postontziak, GFara posta arruntez bidali, galdetegiak saioetara ekarri... Nolanahi ere, partaidetza nabarmen jaitsi da lehen fasearekiko.





7.Landa lana

31.

Behin informazioa bildu ondoren, hurrengo urratsa informazioa ustiatzea izan da, eta hori txostenean jasotzea. Horretarako honako iturriak erabili ditugu:

- Herrietako bileretan jasotakoak
- On-line jasotako galdetegiak
- Herri nahiz autobusetako postontzietan eta saioetan zuzenean jasotako galdetegiak

5. atalean, herri bakoitzaren inguruko informazioa eta herri bakoitzean jasotakoa bildu dugu. Nagusiki, eskualderako aurkeztutako aurre-proiektuaren indarguneak eta hobetzekoak jaso ditugu.

Saioetan jasotakoa eta galdetegietan jasotakoa bereizi egin dugu, galdetegietan, batez ere, galdera itxiei erantzun baitiete herritarrek (proposamenarekin ados edo desados dauden).

Seigarren atalean lineakako ikuspegia txertatu dugu..

7.3 Datu orokorrak

Denetara 290 lagunek parte hartu dute Urola Kostan prozesu honen bigarren fasean. Parte hartzerik bajuna on-line galdetegen bidez izan da (66); eta orekatuagoa izan da bileretara bertaratuz (114) edo paperean galdetegia betez (110) erantzun dutenak.






7.Landa lana

32.

Parte hartzeko bideak



Parte-hartzaileen sexuari dagokionez, papereko galdetegiak zein online bidezkoak ez dute datu hori jaso, eta beraz, soilik bileretara bertaratu direnen datua dugu. Nabarmen handiagoa izan da emakumeen parte-hartzea (78) gizonen aldean (36):

Parte hartzaileak sexuaren arabera






7.Landa lana

33.


Eta adinaren inguruko datuekin arazo bera dugu. Hortaz, soilik bileretakoak jaso ditugu. 46-65 urteen artekoak izan dira gehien parte hartu dutenak bileretan (%35,96); ondoren 31-45 urte artekoak (%27,18) eta 65 urtetik gorakoak (%25,43), eta gutxien parte hartu dutenak 30 urte azpikoak izan dira (%10,56).

Parte-hartzaileak adinaren arabera



Hizkuntzari dagokionez, gehiengoak euskaraz daki (%76,55):

Partaideek euskaraz dakite?






7.Landa lana


34.

Herriz herri parte hartu duten pertsona kopuruari dagokionez, hona hemen banaketa sexuaren eta adinaren arabera sailkatuta:

Parte hartzaileak, herriz herri, sexuaren arabera



Parte-hartzaileak herriz herri adinaren arabera






8. Azterketa herriz herri

35.

Galdetegiak bete dituzten herritarrek nongoak diren identifikatzea ezinezkoa denez, atal honetan herrietako saioetan jasotako iritziak biltzera mugatu gara. Egindako proposamenaren gainean, herri bakoitzean azpimarratutako indarguneak eta hobetzekoak jaso ditugu.

8.1 Aia



INDARGUNEAK

- Maiztasuna nabarmen hobetu da
- Bi lineatan desberdindu izana, Oriora eta Zarautzera, hobekuntza nabaria izango da herrirako
- Proposamena egun dagoena baino orekatuagoa da





8. Azterketa herriz herri

36.

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- Kontuan hartu Orioko parada estazioan izan behar dela, trenarekin konexioa egin ahal izateko.
- Paradetako informazioa. Orduategirik ez dago paradetan.
- Donostiarako konexioa Zarautzik baino, Oriotik egitea proposatzen da.
- Konexioa Orion EuskoTrenekin egin da. Autobusarekin egitea proposatzen da.
- Zarautzera 7:45ean autobusa egon behar du, institutura joan ahal izateko. Horiek itzulerarako 14:30 eta 15:30ean behar dituzte. Autobus horiek Aia-Orio-Zarautz ibilbidea egitea komeni da, Andatza eta Santio Erreka auzoetako ikasleak jasotzeko. Honi erabateko lehentasuna eman behar zaio, beharrik handiena, eta erabiltzaile potentzialik handiena hor baitago. Orduategiak :15-ean beharrean :45ean jar daitezke.
- Orion Ospitaletako autobusarekin baino, hirira doazenekin lotzea komenigarriagoa litzateke.
- Asteburuetan gaueko zerbitzuren bat egotea eskatzen da.
- Zarauzko suhiltzaileetan parada egotea (markesina eta guzti), beste zerbitzu batzuekin konexioa egin ahal izateko (Bilbo, Gasteiz, Loiu...).
- Markesinak falta dira Orioko tren geltokian, Orioko gainean eta Laurgainen.
- Mugikortasun murriztuko bi plaza eduki behar dituzte, gutxienez, autobusek (gurpildun aulkian eta hurren aulkian joan ahal izateko).







8. Azterketa herriz herri

37.

8.2. Aizarnazabal



INDARGUNEAK

- Ez da indargunerik agertu

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Lehen faseko bileran, bi eskari egin zituzten, argi eta garbi:

- Autobusa goraino iristea, herriguneraino
- Ez izatea eskaripekoa, telefono bidez eta aurretik eskatzekoa

Aldundiaren proposamenean, ez da betetzen ez bata eta ez bestea. Oso haserre daude, eta ez badugu konpondu ez bata ez bestea, alferrik goaz





8. Azterketa herriz herri

38.

proposamenarekin, zerbitzua han eta hemen hobetu dela esanez, gero berdin-berdin (edo okerrago) baldin badaude Aizarnazabalen.

- Herri txikien eskariak ez dira aintzat hartzen. Eskaera batzuk eginak dauzkate, garbi; horiek betetzea ez da hain zaila, konponbideak ere ematen dituzte, eta horiek konpondutakoan etorri aurkeztera.
- Eskaripekoa izateak ez du ezer ere konpontzen. Ez daukate zertan aurretik eskatzen ibili, telefonoz; eskubidea ere badaukate egunean bertan batetik bestera mugitzeko, abisatu gabe. Oso lotura handia da eskatu beharra.
- Ez dute askorik eskatzen: herri handiei dena ematen zaie, eta txikiak ez dira aintzat hartzen. Ez dute ezer berezirik eskatzen, minimo batzuk jartzea besterik ez.
- Autobusak ezin duela buelta eman goian? Ez da egia. Aparkaleku batzuk mugituta, ikusi da posible dela eta probatu ere egin dute autobus handiarekin buelta ematea. Jende edadetua ezin da errepidean, behean, utzi, aldapa handia dagoelako herrigunera eta askotan kargatuta etortzen direlako.
- Azkoititik Zarautzera doan autobusa goitik pasatzea erraza litzateke, eta ziurtatuko litzateke horrela Zestoa eta Zarauzkoako zerbitzua.
- Zumarragatik Zumaiara edo Zumaiatik Zumarragara doazen autobus guztiak Iraetatik pasatzen dira. Ez da hain zaila horietako batzuk, noizean behin, Aizarnazabaldik pasatzea. Distantzia berbera da.
- Ez zaie hainbeste inporta zerbitzua urria edukitzea, baina zerbitzu duina eta erregularra nahi dute, 4-5-6 zerbitzu Zumaiarekin edo Zarautzekin lotuko dutenak.






8. Azterketa herriz herri

39.

8.3. Azkoitia



INDARGUNEAK

- Eskainiko diren zerbitzu berri guztiak ondo ikusten dira, bereziki gauetako errefortzuak.
- Ospitalera joan eta afariak emateko aukera oso positiboa da.
- Eibarrera goizetan joateko aukera egotea.
- Bilbora joateko Eibarren konektatzea posible izatea- aukerak ematen dituen zerbitzua eskainiz gero, gehiago erabiliko da.

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- Ospitalera joateko orduro zerbitzua egotea beharrezkoa da.
- Hiriburuetara konexioak behar ditugu: Bilbo eta Gasteizera. Bilbora joateko





8. Azterketa herriz herri

40.

konexioa eskaintzen da orain, baina asko tardatzen da. Garai batean bazegoen Azkoiti-Bilbo ibilbidea egiten zuen zerbitzu bat. Eibarretik Bilbora doazen autobusetako batzuk Azkoititik irtetea nahiko lukete.

- Azkoiti-Zarautz linea udan bereziki indartu beharra aipatu da; gazte asko ingeles ikastaroetara joaten dira Zarautza eta zerbitzua eginez gero, beteko litzateke.
- Donostitik Gasteizera doazen autobusetako batzuk Zarautzen geratuko liratekeen era berean, egoki ikusten dute Arruen eta Elgoibarren ere geratzea.
- Azkoitin autobusek parada bakarra egiten dute, eta beste bi behintzat egitea beharrezkoa litzatekeela uste dute.
- Informazio pantailen funtzionamendua hobetzea. Bi lineatan






8. Azterketa herriz herri

41.

8.4. Azpeitia



INDARGUNEAK

- Azpeiti-Azkoiti linean ikastolako sarrera/irteerak kontuan hartu izana asko eskertzen da. Ikaragarritzko aurrerapausoa da.
- Beizama-Azpeitia linean, Urrestilla-Nuarben geratzea.
- Zumaia- Zumarraga linean, Aizarnazabal eskaripekoa izatea.
- Trenarekin koordinatuta egotea.
- Zestoa-Eibar, zerbitzu guztiak Zestoatik hastea.
- 15:00etan Eibarretik irtetzea.
- Donostia-Azpeitia: Igandeetako eta larunbat gauetako autobus berriak.
- Azkoitia-Zarautz: goizeko 8etan Zarautzen egoteko aukera izatea asko eskertzen da.





8. Azterketa herriz herri

42.

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- Ermuko linea indartzea (Gasteiz eta Bilborekin konektatu ahal izateko)
- Donostiako linean, larunbatetan jartzen dituzten autobusak (La Gipuzcoana) oso zaharkituak eta pertsona elbarri bat joanez gero, ez da batere egokia. Esertzeko tokirik ere ez da egoten.
- Beizama linean ikastetxeetako ordutegiak kontuan izatea.
- **Beizama-Azpeitia:**
 - Ordutegi guztiak eskola orduetara egokitzea.
 - Eskari zehatza: eguerdian 13:00etan eta 14:00ean autobus zerbitzua izatea. 50 erabiltzaile dira Azpeiti-Urrestilla-Nuarbe-Beizama linean ordutegi horretan.
 - Azpeititik Beizamara 21:00etan beste zerbitzu bat jartzea.
 - Matxinbentatik Azpeitira linea sortu beharko litzateke, eta autobus handia behar dela diote. Zenbat biztanle bizi diren begiratzeko Mantxinbenta-Nuarbe-Urrestilla aldean, kopuru horiekin 22 plazatako mikrobusa ez dela nahikoa diote.
 - Une honetan, enpresa pribatu batek ematen duen zerbitzua da, zerbitzu publikoa jartzea erabakiz gero, enpresa hori kontuan hartzea eskertuko lukete enpresaren iraupenerako garrantzitsua baita.
 - Beizama-Nuarbe-Urrestilla-Azpeitia eta Mantxinbenta-Nuarbe-Urrestilla-Azpeitia lineak indartu behar direla diote.
- **Zumaia-Zumarraga**
 - Kontsulta orduetan gabeziak sumatzen dira ordutegi eskaintzari dagokionez 10-12etako tartean. Linea honetan zerbitzuak indartu eta orduroko zerbitzua izateko aukera. Buelako azken autobusa 22:00etan izatea.
- **Zestoa-Eibar,**
 - Zerbitzuak gehitzeko eskaria, Bizkaira joateko lotura egiteko aukera bakarra baita Azpeitiarrentzat.
 - Eskari zehatza: Azpeitia- Eibar 7:15etan Azpeititik pasatzea 8etan Eibarrera heltzeko, eta 9:40 Azpeitian.
 - Eibarretik Azpeitira, 15:00etan eta 16:00etan autobusa egotea eta





8. Azterketa herriz herri

43.

gaueko ordutegia luzatu.

- Zerbitzu gehiago jartzeko eskariaren harira, normalean erabiltzaile kopuruaren arabera zerbitzuak jartzen direla diote baina errealitatean aukerak ematen badira, jendeak gehiago erabiltzen duela. Eta beraz, orduro zerbitzua eta beranduagora arte egongo balitz Bilbotik/Gasteizetik datorren jendearentzat aukera erreala izango litzateke.
- Azpeititik-Gasteizera zerbitzua jartzea.
- Azpeitia-Bilbo linea sortzea. Zuzenean joateko aukera egon beharko luke eta ez litzateke Eibarreraino bakarrik heldu beharko. Autobus guztiak Azpeitiraino heldu ez arren, batzuk Azpeitiraino heltzea eskatzen dute.
- **Azkoitia-Tolosa**
 - Asteburuetan oso zerbitzu gutxi daude, larunbat arratsaldeetan ez dago zerbitzu bakar bat ere.
- **Azkoitia-Donostia**
 - Bada ostiraletan zerbitzua ostiraletan ordu bat luzatzea beharrezko ikusten ez duenik, azken autobusean jende gutxi ibiltzen dela argudiatuz. Bada bestalde, urtean zehar ostiral eta larunbatetan Donostiatik gauetako zerbitzua bi ordu behin eskatzen duenik, beste herrietako garraioekin lotura egiteko aukera emateko.
 - Aste Nagusian eta Donostiako festetan zuzenean datozen autobusak jartzea gauez Azpeitira, Zestoatik pasatuta.
 - Azpeititik Donostiara, Zumaia edo Zarautzek bezainbat aukera izatea.
 - Abuztuko zerbitzuak hobetzea.
 - Donostiatik Azpeitira 90 minutu, herriz herri doalako. Gehiegitxo jotzen dute eta zuzeneko jartzeko eskaria egiten dute (gaueko zerbitzua da).
- **Azkoitia-Zarautz**
 - Urte osoan zehar 1:00 eta 8:00etako autobusak mantentzea (2015aren aurretik)
 - Egurdietan bueltan etortzeko 13:00-15:00-16:00 aukera eta gau partean, 20:00ean.





8. Azterketa herriz herri

44.

- Orokorrean, maiztasunak hobetzea.
- Azpeitia-Zarautz zuzeneko izatea
- Autobus urbano baten beharra ikusten dut. Jende zahar asko gaude eta inguruko auzoetatik herrira etortzeko zailtasunak ditugu.
- Azpeititik Deba-Goienara zer aukera daude?






8. Azterketa herriz herri

45.

8.5. Beizama


Sexua



Hizkuntza



Adina



INDARGUNEAK

- Zerbitzuak, oro har, hobekuntza nabaria izan du
- GFAk zerbitzua bere gain hartzea oso ongi baloratzen da

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- Santa Ageda auzora autobusetako bi, gutxienez, iristea, goizeko lehena, eta eguerdikoa, eskola umeei ere zerbitzua emateko.





8. Azterketa herriz herri

46.

- Tolosaldearekin konexiorik ez dago. Kontuan hartu behar da mediku-zerbitzuak Tolosaldean daudela Beizamako herritarrentzat (pediatra Alegian, ospitalea Tolosan...). Bidegoian-Tolosarekin lotura bermatuz gero, Santa Ageda auzoari ere zerbitzua emango litzaioke.
- Ordutegi proposamen bat egiten da. Azpeitirako autobusarekin loturak ez du zentzu askorik. Hobe da herritarrek erabiliko duten ordutegia zehaztea (ikus proposamena beheko taulan), bereziki eskola-orduekin.
- Asteburuetako ordutegietan, Beizamatik ateratzeko ordutegia ordu erdi aurreratzea proposatzen da.

Azpeitia	Beizama	Santa Ageda
7:15	7:35	7:40
8:05	8:25	
14:00	14:20	
17:00	17:20	17:25
19:15	19:35	
20:35	21:00	

Santa Ageda	Beizama	Azpeitia
7:40	7:45	8:05
	8:30	8:50
	14:20	14:40
17:35	17:40	18:00
	19:35	19:50
	21:00	21:20

Asteburuetan

Azpeitia	Beizama
9:10	9:30
13:00	13:20
15:10	15:30
20:00	20:20

Beizama	Azpeitia
9:30	9:50
13:20	13:40
15:30	15:50
20:20	20:40






8. Azterketa herriz herri

47.

8.6. Errezil



INDARGUNEAK

- Azpeitirako loturak hobetu izana

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- Tolosarako zerbitzuan ez dago aldaketarik. Egungo zerbitzuak ez dio beharrari erantzuten, eta ez da hobekuntzarik planteatzen. Ez zaio herritarren eskariari erantzun. Goizean joanez gero, ez dago bueltarako aukerarik.





8. Azterketa herriz herri

48.

- Azpeitia-Bidania lotura egin beharko litzateke, eta han, Tolosa doazen autobusekin bat eginez gero, aukera asko zabalduko lirateke.
- Eskola orduetan, Azpeitia-Errezil autobusak Loiolatik abiatzea.
- Azpeitian Mugi txartela egiteko lekuren bat jartzea.
- Ordutegirik ez denez proposatu, herritarrek egin dute proposamena (ikus beheko taula)

AZPEITIA	ERREZIL	TOLOSA
06:55	07:10	07:40
07:00	07:15	
07:45	08:00	
09:00**	09:20	
10:30	10:50	
14:10	14:25	14:55
15:10	15:25	Bidaniraino (15:35etan Tolosara doanarekin lotzeko)
17:00	17:15	
19:00	19:20	
20:00	20:20	

TOLOSA	ERREZIL	AZPEITIA
	07:15*	07:30
	08:00	08:15
	09:20**	09:35
09:30	10:00	10:15
	10:50	11:05
15:35 Bidanitik (Tolosatik 15:05etan etorri direnentzako lotura)	15:50	16:05
	17:15	17:30
18:30	19:00	19:15
	19:20	19:35
	20:20	20:35

Urdinez, taxibus






8. Azterketa herriz herri

49.

8.7. Getaria



INDARGUNEAK

- Maiztasuna gehitu izana, bereziki lehen eta azken orduan.
- Ostiraletan ordutegia luzatu izana.
- Larunbatetan gaueko zerbitzuarekin lotzea oso ongi baloratzen da.
- Txartel bakarra egotea.
- Zarauztik 59 zerbitzu edukitzea Donostiara.
- Herritarren parte-hartzea kontuan hartu izana.





8. Azterketa herriz herri

50.

- Oro har, zerbitzua asko hobetu da

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- Bilborako autobusa hartuz gero, konexioa aintzat hartzea Mugi txartelean.
- Bilborako parada ez da egokia, arriskutsua da.
- Getariako parada ez dago egokitua, ez du irisgarritasun baldintzarik betetzen.
- Errepide mozketa dagoen aldiro, Meagan sortzen den arazoa.
- Meagako mikrobusak oso zaharkituak daude.
- Autobus flota, oro har, zaharkitua dago.
- Autobusetako kristal ilunak saihestu.
- Plataformek arazo asko sortzen dituzte, eta mugikortasun arazoak dituztenek zailtasun handiak izaten dituzte.
- Zumaiarako kotxeretara hutsik doazen autobusak Zarauztik Getariara ere erabili ahal izatea.
- Mugi txarteleko transbordoak ez ditu beti behar bezala egiten.






8. Azterketa herriz herri

51.

8.8. Orio



INDARGUNEAK

- Ospitalera zerbitzuak areagotu izana eta afariak ematera joaten den jendearentzako egokitu izana.
- Ostiral gauetako zerbitzua luzatu izana (Zumaia-Donostia)
- Oso positiboki baloratu izan da jaiegunetan maiztasuna handitu izana (Zumaia-Donostia linean)
- Aia-Orio-Zarautz bi lineatan zatitu izana.

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- Maiztasuna gehitu izana, bereziki lehen eta azken orduan.
- Autopistatik pasako den autobusa Oriotik jartzea ondo legoke, hobetzekoa litzateke.
- Tolosa etorbidean, unibertsitateetan geldialdi asko dituela (Zumaia-Donostia)





8. Azterketa herriz herri

52.

- Tren geltoki ondoko geralekua erabiltzea. Aian bizi den emakumezko batek dio, alde ederra suposatuko lukeela, batik bat gauez zubia bakarrik eta ilun dagoenean pasatzeak segurtasun sentrazio eza izaten du eta. Emakume berak Orion bukatzen diren zerbitzuen kasuan egin litekeela aipatzen du, autobusak zain egoten baitira parada horretan. Honek trena hartzeko lotura ere azkartuko luke.
- Geralekuak Tolosa etorbidetik (Donostian) kendu litezke eta Orion geraleku gehiago jarri.
- Pertsona helduek, zailtasunak izaten dituzte autobusetik jaitsi eta igotzeko, beraz aurreko partetik jaitsi behar izaten dute. Gidariaren arabera ahal izaten dute. Koska handiegia da atzealdean eta beraz denbora behar dute jaisteko, emakumezko gidari jator bat dagoela esaten du andreak, eta horrek itxaron egiten duela. Baina besteek presa sartu eta bera urduri jartzen dela. Proposatzen du aurretik jaitsi ahal izatea, eta gero igo beharrekoek igotzea.
- Gizonezko batek dio bera atzetik irteteko arazoak dituela eta 10 gidaritatik 9k aurretik irteten uzten diotela.
- Informazio zerbitzuak hobetu beharra, panelek ez dute ondo eta zehaztasunez funtzionatzen, nola enteratu gaitezke atzerapenez? (geralekuetan moduren bat egotea/telefono bat?)






8. Azterketa herriz herri

53.

8.9. Zarautz



INDARGUNEAK

- Ordutegiak zabaltzea, bereziki eguneko lehen eta azken ordukoetan.
- Erabiltzaileen beharrak kontuan hartu dira. Logika batekin egin da planteamendu berria.
- Donostiara asteburuetan maiztasuna handitu egin da.
- Ospitaletara asteburuetan zerbitzu gehiago jarri dira

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- Aireporturako autobusa gehiago ordaintzen da bidaia agentzian hartu behar delako.
- Telefonoz harremanetan jartzea zail gertatzen da.





8. Azterketa herriz herri

54.

- Webguneko informazioa ez dago eguneratua.
- Ospitaletarako maiztasuna hobetu beharko litzateke. Proposamen berrian, oraindik ere, oso goiz bukatzen da asteburuetako zerbitzua, eta ezin da afaririk eman ondoren autobusez itzuli.
- Ordutegiak paperean jasotzeko zailtasun handiak daude.
- Harremanetarako telefonoak topatzea oso zail gertatzen da.
- Donostiako paradetan informazioa ez dago eguneratua.
- Zarautzen Loiurako parada ez dago seinaleztatua, eta arriskutsua da.
- Informazioa hobetu behar da.
- Jai-egun berezietan, Azpeitia-Zumaia linea, gauez, Zarautzeraino iristea.
- Mugikorretan unean uneko informazioa jaso ahal izatea (autobusa non dagoen, zenbat denbora falta zaion paradara iristeko...).
- Mugi txartelarekin autobusaren atzeko ateetatik sartu ahal izatea, igoera arintzeko.
- Askotan, aurreko atea bikoitza izanda ere, ate bakarra irekitzen du txoferrak, eta igotzea mantsotu egiten da.
- Bizikletaren erabilera arautzea, erabili ahal izateko.
- Autopistan TAGarekin hilabeteko topea dagoen bezala, Mugi txartelarekin ere gehienezko bat jartzea.
- Istripu edo errepide-mozketetan zerbitzua etengo bada, informazioa ematea.
- Gauez Donostia eskualde-buru guztiekin lotuko litzukeen linea bat sortzea (gauean bi edo hiru autobus izango lirateke), adibidez, Donostia-Tolosa-Beasain-Zumarraga-Arrasate-Bergara-Eibar-Zarautz, bi norabideetan ibiliz autobusak.
- Adineko pertsonentzat irisgarritasuna hobetu. Eskailerak oso altuak dira, eta igotzeko eta jaisteko zailtasunak (plataformarik behar ez duen jendea).
- Taxietan Mugi txartela erabili ahal izatea.






8. Azterketa herriz herri

55.

8.10. Zestoa



INDARGUNEAK

- Zerbitzua nabarmen hobetuko da, autobus gehiago pasako da Zestoatik.
- Zumaiara doazen autobus kopurua handitu da
- Eibarrera doan linea Zestoatik ateratzea

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- Zestoarentzat Donostiako Ospitalea da erreferentziatzeko zentroa (Urola Erdian udalerri bakarra). Ez dute Ospitalerako autobus zuzenik. Zumaiatik ateratzen denarekin lotu, edo Zestoatik zuzenean eduki ahal izatea eskatzen dute.
- Astelehenetan, batxilergoko ikasleek ordu erdi itxaron behar dute.
- Azkoitia-Zestoa tartea egiten duten autobusek Iraetan buelta ematea, hartara, futbol zelaira doazen haur eta gaztetxoek erabili ahal izango dute.





8. Azterketa herriz herri

56.

- Zumaian, Euskotrenen konexioa Bilborako norabidean hobetu (egun, 45 minutu zain egon behar dute).
- Zumaian, Getariarako autobusekin konexioa hobetu (egun, 45 minutu ingurukoa da).
- Industrialdeetara zerbitzua hobetu.
- Txartelik gabeko prezioa oso garestia da (Donostiara joan-etorria 10 euro)
- Telefono bidezko arreta hobetu beharrekoa da
- Panel informatiboek ez dute beti funtzionatzen.
- Geltokiren batean autobusa ez bada geratuko, panel informatiboetan argi adierazi.
- Txartelean biletea ordaintzeko diru nahikorik ez dagoenean, txoferrek informazioa eduki dezatela hurrengoan deskontatuko zaiola. Gaztetxoekiko tratua eskasa horrelakoetan.
- Maleteroan gauzak lotu ahal izatea (bereziki musika instrumentuak)
- Azkoitia-Donostia linean, Udako zerbitzuak asko murrizten dira, eta ibilbidea aldatu egiten da. Lanera doan jendea kontuan hartu (hasiera eta bukaerak mantendu, maiztasuna gutxituta ere)






8. Azterketa herriz herri

57.

8.11. Zumaia



INDARGUNEAK

- Deba- Ondarroa linea asko erabiltzen duenik bada, eta zentsu horretan Debara doazen zerbitzuetako ordutegiak gehitu izana eskertzen dute.
- Donostia-Zumaia zerbitzuan asteburuetarako planteatzen den ordutegia ere oso egokia.
- Donostiara joateko dauden aukerak ezin hobeak dira.

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- Ondarroara joaterakoan, joateko bidean koordinatuagoak egotea eskertuko lukete.





8. Azterketa herriz herri

58.

- Bilbo eta Gasteizera autobusez joateko aukera aztertzea. Aldalur konpainia pribatuak gaur egun hori eskaintzen du, enpresa pribatu batentzako errentagarria bada pentsa daiteke zerbitzu publiko gisa ere planteatu ahalko dela.
- Bilbora joateko Zarautzen eskaripeko geldialdia egitea planteatzen ari den era berean Arruen ere egitea eskatzen dute.
- Azkoitiko geralekuan (apeaderoa; poligonoaren ondoan) autobusak geralekua izatea aztertu liteke. Gaur egun, askotan, ilunpetan joaten baikara poligonoraino. Segurtasun ezaren sentrazioa.
- Zumaia- Ospitaleak: Joateko zuzeneko zerbitzua egotea. 5 zerbitzu egotea: 9: 00, 11:00, 13:00, 15:00, 17:00
- Donostia- Gasteiz: Goizez ordu puntetan geldialdia egitea Zarautzen eta Arroan.
 - Gasteizetik 14:30 eta 17:00ean irteten den autobusa Zarautzen eta Arroan geratzea
 - Zarautzen geratuko bada, Arroan sartzea 2 minutuko aldea baino ez da eta gainera aparkatzeko toki andana dago.
- Zumaia-Ospitaleak: Bueltarako Ospitaleetatik zuzenean etorriko diren autobus gehiago.
 - Lasarte-Ospitaleak autobusa Euskotrenekin koordinatu ahal izateko aukera.
- Zumaia- Azkoitia: Orduategiak langileen beharretara egokitzea (jende askok txandaka lan egiten du Azkoitiko poligonoan.)
- Deba-Zumaia/Ondarroa-Zumaia lotura: Ondarroara joatekotan 5 minututako denbora eman. Orain nahiko justu dabil










9. Azterketa lineaz linea

59.

9.1. Eskaera orokorrak

Prozesuaren lehendabiziko fasean, herritarrek hainbat eskaera orokor egin zituzten. Horien gainean galdetuta, honakoa erantzun dute galdetegi bidez:





9. Azterketa lineaz linea

60.

9.2. Eskaerak genero ikuspegiaren arabera

Prozesu honen inguruko datuak kokatu eta hobeto ulertu ahal izateko, beharrezkoa da kontutan izatea garraiobideen eskuragarritasuna, gaur egun genero arteko aldea neurtzeko adierazleetako bat dela, genero-alborapen nabarmena baita erabilitako garraiobidearen arabera datuetan. Era honetara, gizon-auto bikotea iraunkorra dugula dio Emakundek Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2012 txostenean. Gizonezkoen mugikortasunean autoa nagusitzen da (%51); eta emakumeek, berriz, garraio publikoa gehiago erabiltzen du, autobusa bereziki (%20) edota oinez joaten da batetik bestera (%35).³

Garraio publikoa erabiltzeari begira alde handia nabari da emakume eta gizonen artea, eta gidabaimena ez izatea izan daiteke baldintzatzaile bat⁴. 2010eko datuen arabera, Gipuzkoan gidabaimena duten 10 pertsonatik 6 baino gehiago gizonezkoak dira. Erabileraren inguruko datu hauek ezagutzea interesgarria da, prozesuan orohar, eta bereziki bileretan emakumezko gehiagok parte hartu izana errealitate hau konfirmatzen baitigu. Azken batean, autobus-zerbitzua erabili eta bizi dutenek eman dituzte haren inguruko iritziak. Honen ondorioz, orokorrean emakumeen tokialdatze-ohiturak gizonezkoenak baino askoz jasangarriagoak dira, espazio eta denboraren erabilera integratuagoa egiten baitute, Institutioek erabilera horiek sustatu behar lituzkete gizon zein emakumezkoen artean, erabilgarritasuna mugikortasunaren aurretik jarri eta bizitza, familia eta lana uztartzeko aukera emanez

Herrietako saioetara bertaratu direnen artean, aztertu nahi izan ditugu emakumezkoen eta gizonezkoen kezkak zein neurritan diren berdinak, eta zein eskari diren propioak emakumeenak. Modu labur batean, honako ondorioak atera ditugu:

INDARGUNEAK

- **Zaintzari dagozkionak:** Donostia Ospitalera zerbitzuak areagotu izana, eta afariak ematera joaten den jendearentzako egokitu izana.
- **Ikasketei dagozkionak:** Azpeitian ikastetxeetako sarrera-irteera ordutegiak kontuan hartu izana.

³ 16 urteko eta gehiagoko pertsonak (%), erabilitako garraiobidearen arabera. EAE, 2008; Ingurumera-Familiak inkesta, (2008). **Eustat**.

⁴ Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak (2012). **Emakunde**





9. Azterketa lineaz linea

61.

- **Lanari dagozkionak:** Azkoitia-Zarautz linea goizean goiz indartu izana, lanera garaiz iritsi ahal izateko; Zumaia-Donostia linearen ordutegia oso egokia da; Zumaia-Azkoitia linea indartu izana, bereziki goizean goiz.
- **Aisialdiari dagozkionak:** Ostiral eta larunbatetako zerbitzua luzatu izana; Azkoitia-Donostia linea indartu izana.
- **Zerbitzuari dagozkionak:** Asteburuetan eta ospakizun berezietan maiztasuna handitu izana.

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- **Zaintzari dagozkionak:** Asteburuetan Donostia Ospitaleko zerbitzuen ordutegia murriztegia da, ez du aukerarik ematen afariak emateko; Zumarragako Ospitalera joateko maiztasuna ez da egokia, hobetu den arren, kontsulta-orduak eta zaintzak kontuan hartu beharko lirateke; Tolosaldera medikuarenera joateko loturarik ez edukitzea.
- **Ikasketei dagozkionak:** Ikastetxeetako ordutegiak aintzat hartzea, eskolara joateko zerbitzuak bermatuz; musika instrumentuak garraiatzeko aukera edukitzea (maletategian, lotuta).
- **Lanari dagozkionak:** ordutegiak ez daude egokituak Ospitaletara (Donostia eta Zumarraga) lanera joateko.
- **Aisialdiari dagozkionak:** Bilbo eta Gasteizera autobus eskaintza egotea; hondartzarako zerbitzuak areagotzea.
- **Zerbitzuari dagozkionak:** Orioko tren geltoki ondoko geralekua erabiltzea, gauez zubiak segurtasun eza eragiten duelako; irisgarritasuna hobetu, bereziki adineko jendearentzat, igotzeko eta jaisteko arazoak dituzte, eskailerak oso altuak direlako; autobus barruko segurtasuna hobetzea, bidaiari guztiak eserita joan ahal izanez, eta txoferren abiadura kontrolatuz; trenarekin koordinazioa hobetzea; telefonoz konpainiekin harremanetan jartzeko zailtasunak daude; informazioa jasotzeko zailtasunak, bereziki paperean, eta hauen letra-tamaina txikiegia da.






9. Azterketa lineaz linea

62.

9.3. Aia-Orio / Aia-Zarautz



Linea bitan banatu izana eskertu dute herritarrek, nahiz eta zerbitzuetako batzuek lehengo ibilbidea egitea proposatu duten, batez ere, Andatza eta Santio Erreka auzoko herritarrei begira, institutura Zarautzera joateko beste aukerarik ez baitute. Maiztasuna nabarmen hobetu izana baloratu dute, eta proposamena egungo eskaintza baino orekatuagoa dela. Donostiarako konexioak Zarautzik proposatzen badira ere, Oriotik egitea eskatzen dute, eta Eusko Trenekin baino, Orion, autobusarekin egitea loturak. Asteburuetan gaueko zerbitzuren bat egoteko eskaria ere egin da.






9. Azterketa lineaz linea

63.

9.4. Azkoitia-Donostia



Asteburuetan zerbitzua gehitzea ongi baloratzen da, oro har. Ostiral gauetan ere zerbitzua egotea eskatzen dute, eta oro har, maiztasuna handitzea. Udan zerbitzu asko murrizten direla eta, urte osoan antzeko eskaintza edukitzea azpimarratu dute erabiltzaileek. Bidaiaren iraupena da kexa gehien jasotzen duen alderdia, geldialdi asko dituelako. Zestoarrentzat erreferentziako ospitalea Donostiakoa da, eta bertara zuzeneko zerbitzurik ez dagoela aipatzen dute.






9. Azterketa lineaz linea

64.

9.5. Azkoitia-Tolosa



Desadostasun handienetakoa jasotzen duen linea da. Tolosaldearekin lotura oso eskasa deritzote, orokorrean, herritarrek. Zerbitzuan ez da aldaketarik edo hobekuntzarik proposatzen, eta egungo zerbitzuak ez ditu herritarren beharrak asetzen. Lehenbiziko fasean egindako eskariak ez direla kontuan hartu uste dute herritarrek. Autobus guztiek ibilbide osoa egin gabe ere, Azkoititik Bidegoianeraino iritsiz gero (Errezilera baino), aukera gehiago zabalduko liratekeela aipatu dute. Asteburuetan, gainera, zerbitzu horiek nabarmenki murrizten direla kexu dira (igandetan ez dago zerbitzurik). Beizamako herritarrek, adibidez, pediatria zerbitzua Alegian dute, eta ospitalea Tolosan, eta Bidegoianekin lotura hori bermatzea eskatzen dute.






9. Azterketa lineaz linea

65.

9.6. Azkoitia-Zarautz



Herritarrek ongien baloratu dutena goizean goiz zerbitzua indartu izana da. Nolanahi ere, maiztasuna areagotzeko eskaria orokortua da, bereziki arratsalde-iluntzean (zerbitzua beranduago bukatuz), eta udan, hilabete horietan eskaintza nabarmen jaisten dela eta, urte osoan autobus zerbitzua ahalik eta berdina izatea eskatzen dute. Aizarnazabalgo herritarrek, bide batez, linean honetako zenbait autobus herrigunean sartzea eskatzen dute.






9. Azterketa lineaz linea

66.

9.7. Azpeitia-Beizama



Proposamenak egungo zerbitzuak nabarmen hobetzen dituela iritzi diote herritarrek, eta Aldundiak zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartzea, nabarmenki baloratu dute. Proposatu dituzten hobekuntzen artean, azpimarratu dute, batetik, Santa Ageda auzoari ere zerbitzua eman behar zaiola (eskolarako garraioa ere baden neurrian), eta Tolosalderako loturaren beharra, besteren artean, Alegian eta Tolosan dituztelako osasun zerbitzuak. Bi kontu horiek, gainera, uztargarriak dira, eta Bidegoiandik datorren zerbitzuarekin lotzea nahikoa izan liteke. Ordutegiak eskola orduetara egokitzea lehentasunezkoa izan behar dela agertu dute, horiek baitira garraio premia handienak dituztenak. Beste alde batetik, Urrestilla eta Nuarbeko herritarrei ere zerbitzua ematen dien linea dela aintzat hartzekoa dela azpimarratu dute bertaratutakoek, eta eskaintza errealitate horretara egokitu behar dela.






9. Azterketa lineaz linea

67.

9.8. Zestoa-Azpeitia-Azkoitia-Elgoibar-Eibar



Orain arte Azpeitia-Ermua linea izan dena, Zestoa-Eibar izatera pasako da proposamen berriaren arabera. Gehienek begi onez ikusi dute proposamena, baina Ermuarekin lotura galtzea gaitzetsi duenik ere izan da. Hala ere, Urola Erdian oso orokortua dago Bilbo eta Gasteizerako zuzeneko zerbitzuen eskaria, Eibarren lotura egin behar izateak denbora asko galtzea dakarrela argudiatuta. Gaueko ordutegia luzatzeko eskaria ere egin dute linea honetan.






9. Azterketa lineaz linea

68.

9.9. Zumaia-Donostia



Ongien baloratutako linea da. Zerbitzuarekin oso pozik daude herritarrak, eta hobekuntzak nabariak direla adierazi dute ia denek. Eskari nagusia Donostiako Ospitalearekin loturak areagotzea da, eta bertan lan egiten duten langile askok egin dute eskaria laneko ordutegietara egokitu dadila autobus zerbitzua, bereziki asteburuetan. Herritar askok modu positiboan azpimarratu dute asteburuetan Ospitaletara zerbitzua areagotu izana, baina proposamenak asteburuetan zerbitzua goizegi bukatzea jasotzen duela azaldu dute, eta ez duela aukerarik ematen afariak eman ahal izateko.






9. Azterketa lineaz linea

69.

9.10. Zumaia-Zumarraga-Ospitalea



Lineak hobekuntzak izan dituen arren, hobetzeko tartea badagoela uste dute parte hartzaileek. Zumarragako Ospitaletik azken autobusa beranduago aterako den arren, maiztasuna ez dela nahikoa uste dute askok. Bertako langileentzat ere, zerbitzuak ez du ahalbidetzen lanerako joan-etorriak autobusean egin ahal izatea. Zumaian, Euskotrenen konexioa Bilborako norabidean hobetu beharrekoa dela diote (egun, 45 minutu zain egon behar dute), eta berdin Getariarako autobusarekin. Asteburuetako zerbitzuak hobetzeko eskaria handia da, bereziki arratsaldean. Bestetik, Azkoitia eta Zestoa arteko bidea egiten dutenek, Iraetaraino joatea eskatzen dute, hartara, auzo horri zerbitzua emateaz gain, futbolera doazen gaztetxoei ere zerbitzua emango lieke.






9. Azterketa lineaz linea

70.

9.11. Aizarnazabal-Zestoa / Aizarnazabal-Zumaia



Proposamena goitik behera baztertu da, lehen fasean bi eskari zehatz egin zirelako, eta proposamen berriak alboratu dituelako: autobusa goraino iristea, herriguneraino; eta ez izatea eskaripekoa, telefono bidez eta aurretik eskatzekoa. Eskaripekoa izateak ez dituela herriko beharrak betetzen adierazi dute, eta gutxineeko batzuk bermatu behar zaizkiela herri guztiei. Azkoitia eta Zarautz arteko autobusetako batzuk herrigunera sartzeko eskatzen dute, eta hartara, Zumaia eta Zestoara ez ezik, Zarautz, Azpeitia eta Azkoitiarako zerbitzua ere bermatuko litzateke. Eta berdin Zumaia eta Zumarragako autobusetako batzuekin ere, Iraetatik pasatzen baitira. Zerbitzua urria izanda ere, duina eta erregularra izatea nahi dute, 4-5-6 zerbitzu bermatzea eguneko, Zumaiaarekin edo Zarautzekin lotuko dituen.





10. Prozesuaren balorazioa

71.

Atal honetan prozesuaren balorazioa jaso dugu. Batetik, saio guztiak baloratu ditugu herriarrekin, eta bestetik, Elhuyar Aholkularitzaren balorazioa ere txertatu dugu.

10.1. Parte-hartzaileen balorazioa

Oro har, Parte-hartzaileen balorazioa ona izan da, eta Aldundiarekiko esker oneko hitzak entzun ditugu, aukera eman zitzaielako iritzia emateko lehen fasean eta ikusi dutelako bigarren fasean ekarpen edo iradokizunetako asko eta asko aintzat hartu direla proposamenarena zirriborroan.

Bilerotan aurpegitxo bidez baloratu dugu saioa: parte-hartzaileei agindu diegu hainbat alderdi oso tristetik oso pozik bitartean baloratzeko. Hona hemen laburpen-taula:

				
PROZESUAREKIKO ESPEKTATIBAK BETE DIRA...	X	XXX	XXXXXXX XXXXXXX XXXXXXX	XXXXXXXXXX XXXXXXXXXX XXXXXXXXXX
GAURKO SAIOA				
PARTE HARTZEA	XXXXXXXXX XXXXXXXXX	XXXXX XXXXX	XXXXXXXXXX	XXXXXXXXXX XXXXXXXXXX XXXXXXXXXX
GIROA	XXXX	X	XXXXXXXXXX XXXXXXXXXX XXXXXXX	XXXXXXXXXX XXXXXXXXXX XXXXXXXXXX
EGINDAKO LANA		XXXX	XXXXXXXXXX XXXXXXXXXX	XXXXXXXXXXXXXX XXXXXXXXXXXXXX XXXXXXXXXXXXXX
EMAITZA		XXXXX	XXXXXXXXXX XXXXXXXXXX	XXXXXXXXXXXXXX XXXXXXXXXXXXXX XXXXXXXXXXXXXX
DENETARA	21	23	94	165





10. Prozesuaren balorazioa

72.

- **Prozesuarekiko espektatibak:** oro har, jendeak oso ondo baloratu du, hasieran zeuzkan espektatibak bete dira eta gehien-gehienak kontentu daude. Lehendabiziko fasean jende gehiagok parte hartu bazuen ere (156 lehendabiziko fasean, 114 bigarrenetan), jende berri asko erakartzea lortu da bigarren itzulira (114 horietatik 51k parte hartu dute bi faseetan, eta 63 pertsona berri erakarri ditugu). Denetara, beraz, 219 lagun hurbildu dira herriz herri antolatutako bileretakoren batera prozesu osoan zehar.
- **Egun horretako parte-hartzea:** gehienek balorazioa ona izan da, aukera izan dutelako hitz egiteko eta adierazi nahi zutena esateko. Batzuek ez daude gustura parte-hartzearekin, baina seguru asko nahasi egiten dutelako asistentziarekin (espero/nahi baino txikiagoa izan delako, oro har).
- **Egun horretako giroa:** oro har, balorazioa ona edo oso ona da, giro onean eta lasaian egin baitira bilera guztiak.
- **Egun horretan egindako lana:** gehienek eskertu dute egindako ahalegina, eta metodologia atsegina egin zaie.
- **Egun horretako emaitza:** ondo edo oso ondo baloratzen dute gehienek.

10.2.Elhuyarren balorazioa

Ondorengo lerroetan Elhuyarren balorazioa jaso dugu, txostenaren egiturari landu ditugun puntuetan oinarrituta.

10.2.1. Antolaketa-lanak

Aurreko fasea egin izanak asko lagundu digu oraingo lanak aurreikusten eta tamaina hartzen, batez ere aurrelanak egiteko, harremanetarako...

Prozesuak bere konplexutasuna izan du, hedaduragatik eta prozesuan erakunde asko eta desberdinak aritu garelako lanean. Horrek nahitaez eskatzen du antolaketa eta koordinazioari garrantzia ematea prozesuan zehar emaitza arrakastatsua izan dadin.

Talde Eragilea izan da koordinaziorako egitura nagusia. Gure iritziz, egitura honek ondo funtzionatu du, ondo koordinatu gara eta prozesuaren beharren arabera elkartu gara. Bilerak





10. Prozesuaren balorazioa

73.

aurreko fasean baino motzagoak izan dira, baina mamitsuak, eta beharrezkoak prozesua ondo burutzeko. Aholkularitza desberdinen arteko elkarlana beharrezkoa izan da, prozesua eskualde guztietan berdin edo antzera garatzeko, eta elkarlan hori aberasgarria izan da elkarrengandik ikasteko eta prozesua bera hobetzeko.

Lehendabiziko fasean kronograma estuegia zela iritzi genion. Nahi baino estuago hasi genuen bigarren fase hau, baina arestian esan bezala, lehen fasean egindako lanak asko erraztu du oraingo fase hau, eta komunikazio lanekin nahi baino estuago ibili arren, behar bezala bideratu da. Herriarrentzat ere prozesua ezaguna zen, eta horrek gauzak asko erraztu ditu, batez ere saioen dinamizazioari dagokionean.

Eskualdeetako eragileekiko harremanari dagokionez, hainbat eragilerengana jo dugu: udalak, garapen-agentzia ... Guztien inplikazioa ez da bera izan; batzuk asko inplikatu dira eta erraztasunak eman dizkigute. Egitasmoa euren egin dute eta horrek gure lana erraztu du.

10.2.2. Komunikazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiak ahalegin handia egin du alor honetan, eta erraztasunak eman dizkigu komunikazio-lanak ondo bideratzeko: euskarriak eskura jarri, banaketa bideratu... Eta hala ere, arlo hau izan da epeetan estuen ibili dena. Nolanahi ere, oro har, euskarriak garaiz iritsi ziren herrietara, saio presentzialaren aurretik garaiz jarri ziren kartelak, bidali gonbidapenak, buzoneatu galdetegiak... Presaka ibiltzeak izan du, hala ere, ondoriorik, eta galdetegian ez da betetzen zuen pertsonaren daturik jaso. Horrek, batez ere, hainbat datu eta estatistika ateratzea zaildu egin du.

Bide desberdinak landu dira komunikazioa egiteko: prentsaurrekoak, diptikoak, postontziak, kartelak, deialdiak, hedabideak, sare sozialak, webgunea, pantailatarako bideoa... Oro har, zabalkunde handia izan du egitasmoak, eta tokian tokiko hedabideetan ere agertu den arren, sentsazioa dugu lehen fasean baino apalagoa izan dela hau.. Horretarako erraztasuna eskaini digute, gainera. Herriar guztiengana iristeko bideak erabili ditugu, adina eta ohiturak kontuan hartuta, eta hedabide desberdinak erabili dira horretarako. Gainera, aurreko fasean parte hartu zuten guztiengana zuzenean iritsi ahal izan gara.

Galdetegi ereduarekin ez dugu behar bezala asmatu, oraingoan askoz ere jende gutxiagok





10. Prozesuaren balorazioa

74.

bete baitu galdetegia (337 lehenbiziko fasean, 162 bigarreanean).

10.2.3. Metodologia

Herritarren beharrak eta iritziak jasotzeko bide desberdinak erabili ditugu, batik bat bilerak eta galdetegiak.

Bilerei dagokienez, planteamendu metodologikoak herritarren parte-hartzea erraztu edo bultzatu nahi zuen (talde txikietan jarri eta elkarrekin lan eginez), baina herri gehienetan ez da beharrezkoa izan, jende gutxik hartu duelako parte eta parte hartzeko gogoz, gainera betiere errespetuzko giro onean. Alde horretatik, oso giro lasaia eta ona izan da lanerako.

10.2.4. Ustiaketa

Ustiaketari dagokionez, galdetegiak ustiatzeko arazo bakarra izan dugu: galdetegia erantzun duen pertsonaren daturik ez jaso izana (ez herria, ez adina, ez sexua...). Galdetegi diseinu bera izan da paperean eta online, eta horrek erraztu ditu gauzak, baina datu asko galdu ditugu. Horregatik jaso ditugu bereizita bileretan jasotako proposamenak eta galdetegi bidez jasotakoak.

Bestela, aurreko fasean erabilitako galdetegiekin konparatuta, askoz sinpleagoa eta egokiagoa iruditu zaigu fase honetan erabilitako formatuaren diseinua, eta ez dugu aparteko zailtasunik izan.

10.2.5. Parte-hartzea

Parte-hartzea zabala eta anitza izan da, eta modu desberdinetara hartu dute parte herritarrek, saioetan zein galdetegien bidez. Lehen fasearekin alderatuta, baina, nabarmen jaitsi da parte-hartze hori, seguru aski herritar askok nahikotzat jo dutelako bere egunean ekarpenak egin izana. Paperean hainbeste jende galdetegia erantzun izanak agerian uzten du parte-hartze ez-presentzialerako aukerak ematearen garrantzia.

Jende askok errepikatu badu ere, gehiago izan dira lehendabiziko itzulian parte hartu ez eta orain hurbildu direnak herrietako bileretara.

Jendea hitz egiteko eta parte hartzeko gogoz etorri da, badaukalako zer esana, eta esker oneko hitzak etengabeak izan dira, aukera hau emateagatik.





10. Prozesuaren balorazioa

75.

Adinari dagokionez, nabarmena izan da gazteen hutsunea (25 urtetik beherakoena) saio presentzialetan zein paper bidezko galdetegiak betetzean; kontuan izanik garraio publikoaren erabiltzaile asko ikasleak direla, gabezia handia sumatzen da. Kontrako aldean, berriz, jende edadetu askok hartu du parte.

Bigarren fasean, guztira, 114 lagunek hartu dute parte Urola Kostan, 78 emakumezko eta 36 gizonezko. Bilera batzuetara jende gutxi etorri da. Lehenbiziko fasean parte-hartzea altua izan zuten herrietan, oro har, joera bera errepikatu da.

Parte-hartzaileen % 68 emakumezkoa izan da eta hori positiboa da, kontuan izanik emakumezkoak direla erabiltzaile nagusienak eta prozesuaren zeharkako helburuetako bat emakumeen beharrak eta interesak identifikatzea zela, baita emakumeen presentzia eta ahotsa sustatzea ere esparru publikoan.

Adinari dagokionez, batez ere helduek hartu dute parte: 31-65 urte bitartekoak izan dira parte-hartzaileen % 63a.

Gazteek (18-30 urte bitartekoek) oso gutxi hartu dute parte, % 10,5 baino ez dira izan. Herriarrekin egin ditugun bilera irekietara oso gazte gutxi etorri da. Lehen fasean ez bezala, ez da egin gazteengana propio gerturatzeko ahalegin berezirik, eta hori nabaritu da.

10.2.6. Helburuen betetze-maila

Bigarren fasearen helburu nagusia zen proposamen teknikoa aurkeztea eta herriarrekin kontrastatzea, herriarrei azaltzea lehen fasean adierazitakoetatik zer proposamen hartu diren aintzat eta zein baztertu diren eta zergatik, eta uste dugu helburu nagusia nahikoa txukun bete dela. Lehen fasean bezala, eskualdeko herri guztietan izan gara proposamena aurkezten eta herriarrek aukera izan dute aurreproiektua ezagutzeko.

10.2.7. Koordinazioa LKSrekin

Saio guztietan parte hartu du LKSko teknikariren batek, Patxi Larrañagak edo Marta Boixadosek, biak ere aurreproiektua egiten ibiliak. Oro har, teknikari horien ezagutzak eta presentzia oso baliagarriak izan dira herriarren kezkei eta galderei erantzuteko. Oso ondo koordinatu eta moldatu gara elkarrekin, bai bilerak prestatzeko lanetan (batik bat jendearen





10. Prozesuaren balorazioa

76.

aurrean aurkeztu beharreko informazioa moldatzeko), baita bileretan bertan ere. Hala eta guztiz ere, hizkuntzaren (euskararen) erabilerari dagokionez, batzuetan nahi gabe ere bilerak gaztelaniara lerratu dira, teknikari bat hobeto moldatzen zelako erdaraz euskaraz baino.

